

Azaroaren 13an...



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 183. alea 2010eko urria

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua,

XXI. SAN MARTIN AZOKA

Azaroak **13**, larunbata



11:00

- Azoka jendearentzat zabalduko da.
- **Kalejira** Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- **Kalejira** Bizkaiko gaiteroekin.
- 'KULKI' rekin **umeentzako jolasak** eta **ikastetxeetako postuak** San Martin plazan.
- **Ehun buruko artaldearen jaitsiera** Errekaldetik Baldespina parkera.
- **Abere erakusketa** Baldespina parkean.
- **Idi pareak** Probalekun.
- **Artisauen postuak** Santiago plazan.
- 'Astobusa'.

12:30

- **Euskal dantzak** plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

13:00

- Erakuslehio lehiaketako **sari banaketa**.
- **Herri kirol erakustaldia** Komentukua kalean (UKE-IMD-k eta Ermuko Udaleko kirol Zinegotzigoak antolatua):
Ernesto Ezpeleta 'Bihurri' **Hodei Ezpeleta**
Jesus Gisasola 'Zelai II' **Ioritz Gisasola**
Zelailuze **Aretxabaleta**



San Martin kulturala

AZAROAK 5, ostirala:

Kontzertua. 'Esne zopak'.

Lobiano kulturagunean, 22.15ean.
Sarrera 5€. Ermuko Udalak antolatua.

AZAROAK 6, larunbata:

Kameratoia. Euskal Herriko VI. ikus-entzunezkoen emanaldia eta sari banaketa. 19.00etan Lobiano kulturagunean. Topagunea, Euskal Birusa eta Ermuko Udalak antolatua.

Azaroak 15, astelehena

Gaztañerre eguna. Afari-merienda

autogestionatua, 19:30etatik aurrera Erretna Elkartearen.

Edariak eta gaztainak doan.

Antolatzailea: Kaltxango AEK euskaltegia eta Ermuko Berbalagun praktika egitasmoa.

AZAROAK 18, osteguna:

Txakolin dastaketa eta hitzaldia (Talaiberri bodega).
19.00etan Lobiano kulturagunean. Izen-ematea 943179350 telefonoan edo euskalbirusa@euskalnet.net helbidean.
Lobiano Gastronomía Elkarteak antolatua.

AZAROAK 26, ostirala:

Antzerkia. 'Kanpaik jo bitartean', GluGlu Produkzioak.
22.15ean Lobianon. Udakultura Sailak antolatua.

AZAROAK 27, larunbata:

Ermuan Kantuan. 12.30ean Orbe plazan hasita.
Euskal Birusak antolatua.

Haurrentzako antzerkia. 'Mondo fluss', Kolore Bitxia taldea.
17.00etan. Lobiano kulturagunean.
Sarrera 5€. Udakultura Sailak antolatua.

Bertsu emanaldia.

Maialen Lujanbio

Unai Iturriaga

Gai jartzailea: Asier Ibaibarriaga

Sebastian Lizaso

Igor Elorza

Lobiano kulturagunean, 22:15ean. Sarrera 10€, bazkideak 8€.
Sarrerak Elexosten salgai (Erdikokale 2, 1.)
Azaroaren 25 eta 26an, 19.00etatik 20.00etara.
Euskal Birusak antolatua.

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIO**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ignacio Pérez eta
Drogeteniturri.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López, Valentín
Mugarza, Ainara Riveras,
Asier Ibaibarriaga,
Juanmi Bravo eta
Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Estibalitz González,
Dorleta Vidal, Eneritz
Aranburu, Valentín Mugarza,
Danbaka, Debegesa, Ermuko
Udala, Gurutze Gorria,
Zentro Galegoa eta
Asier Ibaibarriaga.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Irune Martínez, Nora Mateos
eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

OKILA Pito real. *Picus viridis*



Zuhaitz-ipurdi baten txirlorak? Hegaztietan dagoenik eta arotzik trebeena-ren moko gogorraren lana. Arbola gerrian, bistan okil-zuloa. Arotz gutxik hain zulo borobilik, konpasa erabilita ere! "Guik-guik-guik-guik-guik" bere kantua euri iragarpen izan da, Euskalmet-en satelitea ez zegoenean. "Han, okilla egarri da; laster da euri-xa!". Jateko? Txindurriak gustukoen eta horiek direla-eta usain zatarra dauka berorrek. Bere mingain luze eta likina txindurri-zuloan sartu eta hari inkatuta geratzen direnekin konformatu behar! Eitzaga, Santamañe, Untzama, Ongarai, Ureta, Trabakun... banakak, baina egon badaude.

Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4 Gurutze Gorriko Gazteria	DANBAKA17 Musika lehiaketa
ELKARRIZKETA5-7 José Luis González	IRITZIA18 Eskerrik asko bihotz-bihotzez
MALLABIAN ZER?8-9 Urriko jaiak	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....10-11 Postal lehiaketako irabazleak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SAN MARTIN12-14 Joseinas Larrañagari elkarrizketa	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
KIROLZALE15 Mikel Goñi	AGENDA22 Azaroko agenda
BOTEPRONTOAN16	

Endika Fernández

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gurutze Gorriko Gazteria

Bi urte barru 30. urteurrena ospatuko du talde honek eta erronka berriei heltzeko gogotsu daude bere kideak: ikastaroak, asteburuko irteerak eta udalekuak, besteak beste. Laster, lokal berria izango dute San Pelaion.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1982. urtean Ermuko Gurutze Gorria sortu zen. Gazteria taldea urte berean edo urtebete beranduago jaio zen, beraz, hasieratik martxan dagoela esan daiteke. Kontuan izan behar da gaur egun aisialdirako talde dezente dagoela eta hainbat ekimen antolatzen direla, baina garai horretan ez zegoen hainbeste aukera.

- Zenbat kide zarete?

10 begirale ditugu, tartean ermuarak eta eibartarrak, koordinatzaile bat eta zuzendari bat. Hala ere, antolatzen ditugun ekintzak ez dira itxiak eta Gurutze Gorriko gainontzeko boluntarioak, gurasoak edo beste norbait laguntzeko prest badago, ez dugu inongo arazorik.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Antolatzen ditugun ekimenak antolatura, gure helburuak Gurutze Gorria-



ren helburuekin bat datoz: sentsibilizazioa, borondatezko lana eta kooperazioa, besteak beste.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Hilean behin biltzen ahalegintzen gara eta boluntarioak ikasleak direnez, ostiral arratsaldetan edo larunbat goizetan izaten dira gure batzarrak. Orain arte gure egoitzan bildu izan gara (autobideko ordainlekuaren ondoan), baina laster lokal berria izango dugu, San Pelaion. Honi esker, bilerak egin eta ekimen gehiago martxan jarri ahal izango ditugu: asteburuko irteerak eta udalekuak, esaterako.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten

dituzue?

Gabonetan jostailuak jasotzeko kanpaina egiten dugu, Ermua, Mallabia eta Eibarko Udalen laguntzarekin. Honi esker, seme-alabak izan eta langabezian edo premia bereziarekin dauden familiei, jostailuak ematen dizkiegu. Gainera, Umeen Gabonetako Parkea antolatzeaz arduratzen gara. Horrez gain, tailerrak antolatzen ditugu eta denbora gutxi barru begirale titulua eskuratzeko ikastaroa egingo dute gure begiraleek.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Interesa duenak 943 176248 telefonora dei dezake.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL


ERMUA

GARAGARDOGEGIA CERYECERIA
NHEH

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



José Luis González, Ermuko Zentro Galegoko lehendakaria:

“Lehendakari bakoitzak bere kutsua eman behar dio elkarteari”

Urtarriletik hasita, José Luis González, ‘Poxpolo’, Ermuko Zentro Galegoko buru da. Eibarko Udalean egiten du lana, Kultur teknikari gisa, eta duela 7 urte inguru egin zen Galiziako Zentroko kide, bere aitaren lekukoa hartuz. Pepe González Zentroaren bultzatzaile nagusia izan zen 1968. urtean, eta bertako lehendakaria izan zen 20 urtez. ‘Poxpolok’, berriz, ez du karguan hain luze irauteko asmoa, denbora asko eskatzen duelako, baina aitak kontatutakoa eta berak gaur arte bizi izandakoari buruz berba egiteko aukera izan du Drogetenitturrik.

- *Zenbat urterekin etorri ziren zure gurasoak Ermura?*

Gure aita Ermura etorri aurretik Euskal Herriko beste herri batzuetan ere egon zen. Hamazazpi urterekin Barakaldora joan zen eta jarraian Durangon eman zituen urte batzuk. Galiziara bueltatu zen berriro, han ezkondu eta Elgoibarrera joan ziren bizitzera nire ama eta biak. Ni Ermuan jaio nintzen.

- *Galizian bizi izan zara inoiz?*

Ez, baina lotura handia daukat Galiziarekin. Emaztea irakasle da bertan eta Galizia eta Euskal Herria artean banatzen dugu denbora. Ez da erreza, baina...

- *Zure seme-alabak hemen jaiotakoak dira?*

Bai, baina Galiziarekin lotura handia dute eta horregatik emazteak galegoz hitz egiten die eta nik euskaraz, hizkuntza biak ikas ditzaten.

- *Zergatik erabaki zenuen Zentro Galegoan parte hartzea?*

Nire aita gaixorik zegoenean semeok Zentroan sar gintzen nahi zuen. Horren funtzionamendua ezagutzen genuelako eta dinamika ez galtzeko. Ermuan bizi garen hiru anaioek Zentro Galegoko kide egin ginen (beste anaia bat Mutrikun bizi da). Ordura arte Zentroarekin harremana ere bagenuen eta hainbat gauzetan laguntzen genuen.



'Poxpolo' Zentro Galegoan dagoen liburutegian.

- *Zenbat urtez izan zen zure aita, Pepe González, lehendakari?*

Oker ez banago, Zentroa 68an sortu zen eta guztira 20 urtetan lehendakaria izan zen. Ez jarraian, Guadianaren antzera ibiltzen zelako, agertu eta desagertu, baina Zentroaren sorreratik taldean egon zen eta dinamikak sortu zituen.

- *Erreza izan zen Zentroa martxan ipintzea?*

Beno, kontu bitxi asko dago. Nire aita bultzatzaile nagusia izan zen, bera eta beste 2 edo 3 lagun, baina berak hartu zuen bere gain lan eta pisu osoa. Hala ere, errepresaliatu baten semea zenez, ez zuen lehen zuzendaritza batzordean parte hartzeko aukerarik

izan eta bokal izendatu zuten, azken bokala, gainera.

- *Eta zu nola aukeratu zintuzten?*

Asanblada honetan, elkarte ia guztietan gertatzen den moduan, ez ditu inork ardurak hartu nahi. Gurean, lehendakaria aukeratzeko hiru terna egiten dira eta terna bakoitzean lehendakari bat aukeratu behar da. Ni 3. ternan nengoen eta ia-ia eliminazioz egokitu zitzaidan kargua. Dena den beste guztiek, edo bazkide aktiboek behintzat, lagundu egiten dute, gure arteko harremana oso ona delako. Batzuetan, familia edo lana dela eta, ezin diozu karguari ganoraz aurre egin.

- *Zeintzuk dira zure betebeharrak?*

Elkartea ordezkatu eta honen arduradun legala izatea da nire eginkizun nagusia. Letra gailegoetan, esaterako, egitaraua egiteaz arduratu behar naiz.

- *Zeintzuk ekitaldi antolatzaren dituzue urtean zehar?*

Letra galiziarren jardunaldiak, magostoak, enpanada jaia, gabonetako berbena, erregeen kabalgotan laguntzen dugu... Momentuz horiek mantentzen saiatzen gara. Horretarako jendea behar da eta, egon ere, badago.

- *Zer moduz zure lehen Letra Galiziarak?*

Real Academia Galegaren omendu beharreko idazle galiziarra finkatzen du eta aurtengo Uxío Novoneyra olerkaria izan da. Novoneyra omentzeko Koldo Izagirre idazlea Ermura ekartzea proposatu nuen, honek Novoneyraren 'Os eidos' ('Bazterrak') euskaratu baitzuelako. Elkartekoak harrিতa geratu ziren hasieran euskaldun bat ekarteagatik, baina nire ustez aukera polita zen Izagirrek Novoneyraren inguruan beste ikuspuntu bat ematea. Nire ustez lehendakari bakoitzak bere kutsua eman behar dio elkarteari.

- *Zein da honen helburua?*

Hasierako urteetan immi-

“Bultzatzailea izan arren, aitak ezin izan zuen lehen lehendakaritza batzordean parte hartu”

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Pub SCORPIO

 Zubiaurre, 21
ERMUA

grazioarekin lotuta zegoen elkarrekin. Nire aita 17 urterekin Galiziatik Barakaldora joan zenean, leku bat topatzeko beharra zuen eta bertako Galiziako Zentroan harrera egin zioten eta lehen pausuak ematen lagundu zioten. Ermuko taldea ere helburu horrekin sortu zen. Bigarren helburua Galiziako kultura gerturatzea izango litzateke, ez galtzeko.

- Zenbat kide dago gaur egun Zentroan?

Bazkide moduan 75 edo 80 kide daude gutxi gora behera. Eta gainera 200 lagunetz osatutako taldea dugu inguruan, laguntza ematen.

- Tartean gazteak ere badaude?

Gazteenak 21 urte ditu. Kontuan izan behar da 40 urteko elkarrekin dela. Jendea nagusitzen joan da eta euren seme-alabek bete dituzte gurasoen postuak oinordetzan. Txoko moduan funtzionatzen du.

- Zuen elkartean dauden gazteek hizkuntza eta kulturari heltzen diete?

Kasu bakoitza ezberdina da. Guraso bakoitzak bere bidea hartu zuen seme-alaben heziketari dagokionez, eta etxean zer hizkuntza erabiliko zen. 60 eta 70. hamarkadetan hizkuntza gutxiagotuen egoera ere ezberdina zen. Nire etxean, esaterako, anaiei gaztele-raz hitz egiten ziguten beti eta ama eta aitak, euren artean, galegoz hitz egiten zuten.

- Galiziatik etorritako ondoz ondoz belaunaldiak hemenean jaiotakoak dira. Galegotzat dute euren burua?

Norberak ikusi behar du hori. Zaila da azaltzea. Bakoitzak aukeratu dezala nongoa izan nahi duen!

- Galiziatik etorri diren ermuarrak leku berekoak direla esaten da. Egia da?

Ez, leku guztietatik etorritakoak dira. Egia da Verin bailaratik, Vilardebos, Maceda, Xinzo edo Allarizetik jende mordoia etorri zela. Baina nire familia, esaterako, Ourenseko auzo txiki batetik

“Bakoitzak aukeratu dezala nongoa izan nahi duen!”

etorri zen, Cudeirotik, eta Ermuan beste familia bat besterik ez dago bertatik etorritakoa.

- Eta zer gertatzen da Allarizekin?

Hori benetan bitxia da. Ermua eta Eibarko jendea leku guztietan topatzen duzu. Niretzat magikoa da. Beste batzuei ez zaie gustatzen hemengo jendea oporretan topatzea, baina justu horregatik merezi duela uste dut nik. Harrigarria da. Xinzo eta Verinen gauza bera gerta daiteke.

- Horregatik esaten da Ermua bosgarren probintzia gailegoa dela?

Nik Galiziako probintzia asko ezagutu ditut: Sestao, Barakaldo, Pasaia, Buenos Aires, Bartzelona... Aurretik euskaldunak ere beste leku batzuetara joan ziren, egoera ekonomikoak bultzatua,

eta ez dago besterik.

- Galiziatik etorritakoak dira aspaldian Ermua etorri ziren etorkin gehienak?

Ez, ez daukat daturik baina ez dut uste. Extremaduratik ere, Serena bailaratik, jende asko etorri zen eta Guadajara aldetik, Illanatik, baita ere. Zenbait lekutatik etorritakoak dira gehienak. Gaur egun, marokiarrekin ere gauza bera gertatzen dela esango nuke. ‘Deia efektua’-edo izango da. Nire emaztearen herrikoak Bartzelonara eta Parisera joan ziren batez ere eta udan, katalanez eta frantsesez betetzen da herria.

- Zein harreman du Zentroak euskararekin?

Nire lagun batek beti esaten dit euskara leku susmagaitzetara eramanez egiten dudala. Aurten XXVI Letra galiziarren jardunaldietako egitaraua gaztele-raz eta euskaraz itzulita egotea lortu dugu eta Koldo Izagirrerik egindako elkarriketa euskaraz agertzen da. Azken urteetan pregoia ere 3 hizkuntzatan irakurtzen da. Guk egindako ekimen guztietan euskararen presentzia bermatzea nahi dugu.

- Eta azkenik, luzarorako hartu duzu kargua?

Ez, kargu honek denbora eskatzen dizu eta momentu honetan, familia eta lana dela-eta, nik ezin diot behar beste ordu eskaini lan honi. Laguntzeko prest nago baina lehendakari izatearena ez da luzea izango.

Dorleta Vidal

Ermuko Zentro Galegoko lehen zuzendari-tza batzordea. Zutik, erdian, Pepe González, José Luisen aita.



Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK

**KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK**

**FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

MALLABIKO Herriko taberna

**Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...**

*** Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...**

**Enkarguak:
943 174 952
(asteartetan itxita)**



Urriaren 29, 30 eta 31:

Mallabiko urriko jaixek

URRIAK 29, OSTIRALA

- 16.30ean tailerrak ume-entzat eskolako frontoian.
- 18.00etan: Txupinazoa eta enkartelada.
- 19.00etan: Elizpeko pilota txapelketaren finala.
- 20.00ean: Trikibertso-poteoa tabernetan. Trikitilariak: Mallabiko trikitilari eskola eta bertsolariak: Odei Barroso, Joseba Artza eta Beñat Ugartetxea.
- 21.30ean afaria frontoian eta Itsaso Praderari omenaldia.
- 23.30ean: LOTXO taldearekin erromeria (plazan)



URRIAK 30, LARUNBATA

- 10.00etan: Eskolarteko futbitoa Eskolako frontoian. A.D. Mallabia F. T.
- 11.00etan: Saskibaloia Eskolako frontoian. A.D. Mallabia F.T.
- 12.00etatik 14.00etara eta 17.00etataik-20.00etara: Paintball futbol zelaian.
- 22.00etan: Rock Kontzertua: GATILLAZO KOP DES-KONTROL ESNE BELTZA
- 5.00etan: Txorizo pinxoak Izar Gorri Elkartearen.



URRIAK 31, IGANDEA

- 16.00etan: Hipo eta Tomax pailazoak frontoian eta ondoren txokolatada.
- 16.30ean: Mus, Tute, Asto eta Briska tabernetan. Sariak:
 - 1.- 80 euro
 - 2.- 50 euro.
- Izena ematea: Mallabikoak doan eta Mallabitik kanpokoak 4 euro bikoteak.
- 19.00-21.00/22.30-00.30: LUHARTZ taldearekin erromeria (plazan)



ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA **KIROLAK**

San Pelaio 4A behe
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

BACKSTAGE

6 - 16 URTEKOENTZAKO ARROPA!

Zubiaurre 30 · Ermua
943 174 576

IZOTZ IZOZTUAK

ERMUA Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE Merkatua
943770598

FLUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

943172665 ERMUA

BARRIO GROS Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak... eta hostalarien umore ona

UDALAK ETA HIERROS SERVANDOK ITUNA SINATU DABE

Mallabiko Udalak eta Hierros Servando enpresak kolaborazio itun bat sinatu dabe Mallabiko talde kultural eta batez be kirol taldeei laguntza finantzieroa emoteko. Aspalditik gure herrian lanean diharduen eta herritar askok bihera egiten daben empresa izanik, Hierros Servando Fernandezek hurrengo lau urtetan Futbol eta Pelota taldiek lagunduko dittu guztire 24000 euro emonez, 3000 euro urteko talde bakoitzari. Futbito taldiek hiru urte daroaz jarraian kategoriaz igotzen. Aurten Euskal Ligan jokatu dabe eta diru kopuru honekin lasaia ibiliko dira. Pelota taldeko partaide, Itsaso Pradera munduko txapelkunaz gain, hainbat neskatila eta mutiko ere badira gure herriko kirol jarduerak aberasten eta bultzatzen dihardutenak.



SUKALDARITZA IKASTARO ARRAKASTATSUE

Izar Gorri elkartiek antolatute, urriko barixekuetan sukaldaritza ikastaro baten parte hartu dabe hamar bat lagunek. Barixeku bakoixien menu bat prestatzen ikesi dabe ikasliek: sarrerakuek, labakuek, parrillan eginddekuek eta postriek. Berixeku bakoixien irakasle bat eduki dabe: Ana Larrondo, Maite Revilla, Aitor Sarasua eta Aitor Txurruka bestiek beste. Ikastaruaren prezixue 40 eurokue izen da, jenerue erosi eta Izar Gorri elkarteko sukaldeko gastuek ordaintzeko. Esan deuskue, jentiek halan eskatuko baleu, urtarrilien beste ikastaro bat egingo dabela.

DAMARIS PAN ETA BESTE 14 ARTISTEN LANAK IKUSGAI PORTALEAN

Damaris Pan mallabittarraren lanak Eibarko Portalean hil honen 22tik aurrera ikusgai doguz. Euskal herriko beste 14 artisten lanekin batera 'Inpresioak' izeneko erakusketa kolektibo egongo da ikusgai. Mallabin pintura klasiek emon ondoren, Berlinen ibili da Damaris. Gogoratu behar dogu Damari-sen ikasle Garazi Mugarzak irabazi ebala 2006 BMW sariketa estatu mailan eta beste 6 ikasleren lanak finalaurrera heldu zirela.

Eneritz Aranburu

Herboralia

Belar-denda

- Fitoterapia
- Aromaterapia
- Bach loreak
- Janari ekologiko eta biologikoak
- Bio-kosmetika
- Pertsonalizatutako dietak
- Teak pisura
- Masajeak

Zatoz medikuntza naturala probatzera!

Goienkale 4 - Ermua
943 17 37 04

**ERLORA IRTEERA
ARTARRAIREKIN**

Azaroaren 7an, domekan, Erlo mendira (1.029m.) irteera egingo du Artarraik. Autobusa 8.00etan irtengo da Agirre Kirolak dendaren aurretik eta 14.00etarako bueltan egongo da. Parte hartu nahi dutenek edota informazio gehiago jaso nahi dutenek Artarraiko egoitzara jo dezakete, Teresa Murga eraikinaren 2. solairuan, ostegunetan 19.30 eta 20.30ak bitartean.

**GABONETAKO
AISIALDI
EKINTZETARAKO
IZENEMATEA**

Urtero bezala, Antxitxiketan taldeak eta Ermuko Udaleko Euskara Sailak LH eta DBHko umeentzako aisialdi ekintzak prestatuko dituzte Gabonetarako: jolasak, irteerak, kirola... Izena emateko epea azaroaren 8tik 20ra egongo da zabalik. Informazio gehiago jaso nahi duenak Ermuko Udaleko Euskara Sailera jo beharko du, 8.30etik 14.30era.

**MUSIKA TRESNEN
ERAKUSKETA**

Eskolabarri ikastetxeko irakasle eta ikasleek musika tresnen erakusketa egingo dute San Martin egunean, azaroaren 13an. Egun horretan musika tresnak Lobiano kulturunean egongo dira ikusgai 10.00etatik 12.30era eta sarrera dohainik da.

2010eko postal lehiaketako sariak banatu dira

"Baina zelan jun leike oportetan sufritzera?", horrela hasten da Oskar Moralesek eta Edurne Iriondok Indiatik bidalitako postala. Honi esker, Euskal Birusak urtero antolatzen duen postal lehiaketa irabazi dute eta sari gisa Donostiako Maddiola landetxean asteburu-pasa egingo dute. Bigarren saria (spa batean egonaldia), Nagore Espillak irabazi du Norvegiatik postala bidaltzeagatik eta 3. saria (afari bat Mendiola jatetxean), Goiatz Minguezek eta Iosu Yarzak Mexikotik bidalitako postalarentzat izan da. Gazte txokoan, berriz, Igor Piñeiro (Lanzarote), Andoni Arroyo (Conil) eta Peio López (Mojácar) izan dira irabazle eta hauek 50, 40 eta 30 euroko erosketa txeketa eskuratu dute, hurrenez hurren. Guztira 52 postal jaso dira, 38 nagusien kategorian eta 14 gazte txokoan. Sari banaketa urriaren 16an egin zen Lobiano kulturunean.

**Ermua eta Mallabiko enpresek Kalitate Turistikoaren diploma jaso dute**

Ermuko Mérida ostatuak, Ancón Nautikak eta Mallabiko Zelai landa-etxeak eta Longa nekazalturismoak Kalitate Turistikoaren diploma jaso dute hila-bete honetan. Guztira, Debarreneko 21 enpresa eta erakundek jaso dute sari hau, Kalitate Turistikoko Praktika Onen Programan parte hartzeagatik. Ekimen honen helburua da enpresen antolakuntza, barne kudeaketa eta bezeroen ezagutzak hobetzea, eta hainbat fase ditu: formazioa, bisita pertsonalizatuak, tailerrak eta errekonozimendua. Programak 4 urteko iraupena izaten duen arren, urte bakoitzaren amaieran, diploma eta agiria banatzen zaie parte hartzaileei, kalitate turistikoarekin duten konpromisoa errekonozitzeko. Aurtengo ekitaldia Itziarke Salegi jatetxean burutu zen eta Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendaria den Isabel Muela arduratu zen diplomak eta agiriak banatzea. (Argazkia: Ermuko Udala).

**Debegesak 25. urteurrena ospatuko du**

Debegesak, Debarreneko Garapen Ekonomikorako Agentziak, 25 urte beteko ditu urriaren eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi burutuko dira urriaren 27a eta 29a bitartean. Urriaren 27an, 'Debarreneko Gizarte Balioen I. Saria' ren sari-banaketa egingo da, besteak beste. Sari honek "bizitza-ibilbideagatik gure eskualdeko gizarte balioak ordezkatzeko dituen pertsona edo erakundea sarituko du: integritatea, errespetua, ekintzaitasuna eta kolaborazio-kooperazioa, hain zuzen ere", azaldu dute Debegesako arduradunek. Urriaren 29ak, berriz, lurralde lehiakortasuna izango du ardatz eta jorratuko diren gaiak hauek dira, besteak beste: makina erreminta Compite, Euskal Kostaldeko Geoparkearen proiektua, Deba Ibaiaren proiektua eta lurralde garapenerako Udalen lankidetzeta.



SAGARDUI
bolsos

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Drogeteniituri, 183 zkia.

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

Berbalagun egitasmoaren edizio berria martxan



Pasa den ostegunean Ermuko Berbalagun praktika egitasmoak hasiera adierazten duen 'txapligua' bota zuen Lobiano kulturgunean. Aurkezpen honek jendeak izena emateko, Berbalagun zer den jakiteko eta egitasmo honen ingurukoak ezagutzeko balio izan zuen. Horretarako, bertan izan ziren Udal teknikari den Fernando Aranberri, Euskal Biruseko kide den Rosa Jaussi, Udal euskaltegiko Mikel Berbois eta egitasmoaren arduraduna Juanmi Bravo. Hasierako

azalpenen ostean, aurreko edizioetako zitetako berbalagunkideak eta ekintzetako parte hartzaileak ezagutu ahal izan ziren 'power point' aurkezpen txukun bati esker. Bukatzeko, eta bertaratutako hartu emana sustatzeko, mokadutxoa eta ardotxoa hartzeko aukera ere izan zen. Horrela bada, jakizue aurki jarriko dela martxan Berbalagun, azaroaren lehen astean, hain zuzen. Beraz, arin ibili, talderik gabe gelditu baino lehen. Izena emateko, ohiko diptikoaz gain, ermua_berba@ae.org helbidera mezua bidal dezakezue. Edo, bestela, Udaletxeko Euskara Sailean, Euskal Birusaren egoitzan edo Udal eta Kaltxango euskaltegietan galdetu.

Drogeteniturrri Danbaka musika lehiaketako laguntzaile da



Urriaren 5ean, Drogeteniturrri aldizkariak eta Goienak antolatutako Danbaka musika lehiaketak hitzarmena sinatu zuten, Debabarrena eta Durangaldeko beste bost herri aldizkariekin batera: Eibarko ...eta kittol!k, Soraluzeko 'Pil Pilean'ek, Elgoibarko 'Barren'ek eta Durangoko 'Anboto'k. Hemendik aurrera eta urtarrilera bitartean lehiaketaren gorabeheren berri emango da hilero Drogeteniturrin. Azaroan hasita, lehiaketako materiala zozketatuko da: sarrerak, kamisetak eta diskoak, besteak beste. Iraileko Drogeteniturrin aurkeztu genuen Seafóid talde ermuarrak parte hartuko du lehiaketan eta lehen saria eskuratzeko gogor aritzeko asmoa du, diskoa grabatzeko aukera izateko. Azaroaren 26an eskainiko dute kontzertua Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22.00etan,

Ondarruko 'Xarma', Eibarko 'Trusters' eta Aretxabaletako 'Scam' taldeekin batera. Danbaka bi urtean behin burutzen da eta duela bi urte Nemon talde ermuarrak hartu zuen parte eta finalera heltzea lortu zuen. Zorte on Seafóid!

TERESA MURGAK 100 URTE BETE DITU

Eta ez gara ari Goienkale kalean dagoen eraikinataz, 50 urte bete berriak dituen eskola izandako leiho urdineko horretaz, izena eman zion markinarrari buruz baizik. Ez zen bertako maistra izan, askok uste izan duen bezala, eskola eraiki zen lurraren eta Lobiano jauregiaren jabea baizik. Bizitza-luzera gero eta gorago doan gizarte honetan, pribilegio bat delako adin borobil horretara hain gazte eta gogotsu ailegatzea, ZORIONAK! Eta urte askotarako, zergatik ez?

XVII. JUANITA IBAIBARRIAGA LITERATUR LEHIAKETAREN AZKEN EGUNAK

Euskal Birusak urtero antolatzen duen Juanita Ibaibariaga Literatur Sarian parte hartu nahi dutenek azaroaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren ipuinak edo erreportajeak. Sari banaketa, berriz, azaroaren 25ean, ostegunean, egingo da 18.00etan Lobiano kulturgunean. Informazio gehiago jaso nahi dutenek www.euskalbirusa.org webgunera jo beharko dute.

ARTARRAI OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua • ☎ 943 033 830

OUTUMURO Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera getan zabaltzen dugu

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Azaroak 13

Badator XXI. San Martin Azoka!!

Azken 21 urtetan bezala, Euskal Birusak San Martin Azoka prestatzen dihardu. Gero eta ekimen gehiago, eta gero eta indar gehiago behar. Goizean-goiz prestaketa lanetan hasiko gara plazan. Lagundu nahi baduzu, bai prestaketan, bai egunean zehar, deitu 943179350 telefonora edo idatzi mezua euskalbirusa@euskalnet.net helbidera.

Ermuar bat, txerri-errifa bat!!

Azaroak 13, larunbata

XXI. SAN MARTIN AZOKA

taloak, nekazaritza, abereak, euskara, bertsoak, errifak, herri kirolak, sahieskia, umeentzako ikuskizunak, artisauak, txerria...



DULCE BEBE PEQUE'S
 0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura
 Zubiaurre 30 · ERMUA
 943 170 005

solozabal tabakoak
 torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33

CITROËN AUTOS AMEDI
 Zearreko buelta 3 L8 pab.
 Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Joseinas Larrañaga: “Abereek kolore berezia ematen diote azokari”

Ermuarra. Urkora bidean dagoen Elorreta baserrian jaioa duela 52 urte. San Martin Azokako antolakuntzan makina bat lan egina. Iaz lehen aldiz, azokara abereak ekartzea pentsatu eta, Euskal Birusarekin batera, bere gain hartu zuen ardura hori. Arrakastatsua eta deigarria izan zenez, aurten ere abereak ekartzeko proposamenak aurrera darrai eta antolakuntza zertan den jakin nahian berarekin izan gara.

- Nolatan erabaki zen abereak azokara ekartzea?

San Martin Azokaren antolatzailea den Euskal Birusetik jaso nuen abereak ekartzeko asmoa. XX. edizioa zela eta zer edo zer berezia egin nahi zuten. Ni baserritarra izanik, inguruko baserritarrek hitz egin eta aurrera egitea lortu genuen.


- Zenbat abere izan ziren iaz?

Urko eta Ureta mendietako abereak izan ziren. Hiru baserrietatik ekarri genituen guztiak: Ureta, Aritxulueta eta Elorreta baserrietatik. 4 behi, idisko bat, 4 behor eta zaldi bat, idi pareak, ahuntzak, basurde kumeak, ardiak, oiloak..., denetarik izan genuen.

- Zein zailtasun izan zenituzten?

Lehenik eta behin, lekua adostea. Baldespinako parkean jarri genituen azkenean, baina hori erabakitzea ez zen batere erraza izan. Horrez gain, Udalarekin makina bat bilera, Aldundiko baimeak eta abarrek buruhauste dezente sortu zizkiguten. Azoka egunean bertan ere, animalientzat leku eta gune berria zenez, haiek zaintzen ere izan genuen lana.

- Zein ordutan hasi zen lana San Martin Azoka egunean?



Hau guztia antolatzen 3 hilabete lehenago hasi ginen eta egunean bertan, goizeko 5.30etarako lanean geunden.

- Jendeak zer zioen?

Herriko zaharrenek, “Hau zergatik ez da orain arte egin?” galdetzen zuten. Beste batzuentzat, abereak lehen aldiz aurrez-aurre ikusteko aukera eskaintzen zuten. Oro har, jendea pozik sumatzen zen berrikuntzarekin.

- Aurtengo ediziorako, zein asmo duzue?

Iazko abere guztiak ekartzeaz gain, 100 ardi inguru, Errekaldetik hasi eta Zu-

biaurre kalean barrena, kalejiran pasako dira Baldespinako parkeraino. Goitik behera 11.00etan eta berriz Baldespinatik Errekaldera, 14.00etan.

- Besterik?

Halako ekimen berritzaile batek lan asko eta esfortzu ekonomiko handia eskatzen duela. Euskal Birusarentzat ere erronka handia da. Egunean zehar abere asko zaindu eta koordinatu beharra. Halere, merezi duela uste dut. Azoka gunea zabaltzeaz gain, kolore berezia ematen dio.

Asier Ibaibarriaga

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Quetzal
Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

DO
Mouth

Proba-Leku
Hezpaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

San Martin kulturala



AZAROAK 5, ostirala:
Kontzertua. 'Esne zopak'.
 Lobiano kulturagunean, 22.15ean.
 Sarrera 5€. Ermuko Udalak antolatua.

AZAROAK 6, larunbata:

Kameratoia. Euskal Herriko VI. ikus-entzunezkoen emanaldia eta sari banaketa. 19.00etan Lobiano kulturagunean. Topagunea, Euskal Birusa eta Ermuko Udalak antolatua.



Azaroak 15, astelehena

Gaztānerre eguna.
 Afari-merienda autogestionatua, 19:30etatik aurrera Erretena Elkartearen. Edariak eta gaztainak doan. Antolatzailea: Kaltxango AEK euskaltegia eta Ermuko Berbalagun praktika egitasmoa.



AZAROAK 18, osteguna:

Txakolin dastaketa eta hitzaldia (Talaiberri bodega). 19.00etan Lobiano kulturagunean. Izen-ematea 943179350 telefonoan edo euskalbirusa@euskalnet.net helbidean. Lobiano Gastronomía Elkarteak antolatua.



AZAROAK 26, ostirala:
Antzerkia. 'Kanpaiak jo bitartean', GluGlu Produktzioak. 22.15ean Lobianon. Udakultura Sailak antolatua.

AZAROAK 27, larunbata:

Ermuan Kantuan. 12.30ean Orbe plazan hasita. Euskal Birusak antolatua.



Haurrentzako antzerkia. 'Mondo flurs', Kolore Bitxia taldea. 17.00etan. Lobiano kulturagunean. Sarrera 5€. Udakultura Sailak antolatua.

Bertso emanaldia.

Maialen Lujanbio Sebastian Lizaso
Unai Iturriaga Igor Elorza
Gai jarzailea: Asier Ibaibarriaga

Lobiano kulturagunean, 22:15ean.
 Sarrera 10€, bazkideak 8€.
 Sarrerak Elexosten salgai (Eraldikokale 2, 1.)
 Azaroaren 25 eta 26an,
 19.00etatik 20.00etara.
 Euskal Birusak antolatua.



**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

KRABI

Ileapaindegia
 Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Drogeteniturrri, 183 zkia.

Cable Spot



25 urteko esperientzia dugu
antena kolektiboak eta atezain
automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTrā egokitu.
ETEN ANALOGIKOA
GERTU DAGO!



EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,
banda zabala, kable telebista...



ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

Mikel Goñi: “Inoiz baino gusturago nabil pilota munduan”

Pilota munduan oso izen ezaguna. Makina bat zale eta aurkari izan dituen pilotaria. 1996an egin zuen debuta profesional mailan eta 13 urteren ostean, 2009an utzi zuen pilota profesionala. Geroztik, Garfe eta Ordago enpresentzat ari da makina bat pilota jaialditan parte hartzen. Aurten San Martin Azoka egunean, Ermuan izango dugu aspaldiko partez.

- Zer moduz zabilta?

Egia esan oso pozik eta baikor. Pilotan jokatzeko ere inoiz baino gusturago nabil, bigarren semea ere badoa aurrera... Zaharrenak 8 eta txikiak 18 hilabete ditu. Emaztea ere lanean hasi da eta etxeko lanak egitea egokitu zait azkenaldian.

- Prentsan zuri buruz ia ez da berririk...

Ez dut horren beharrik ere sumatzen. Gustura nago komunikabideetatik urrun. Profesional mailako azken hilabeteetan, askotan larregi azaltzen nintzen. Nire pilota ibilbideak baino nire bizitzako ohiturak eta ekintzak bihurtu ziren albiste iturri.

- 2009an ASPE enpresatik kanporatu zintuzten...

Oso garai gogorra izan zen niretzat. Min handia sorrara-

zi zidan, baina aurrera egin jakin dut. Nire kasa pilota jaialdietan parte hartzen hasi nintzen eta nire lekutxo egin dut. Pilotak profesional mailaz gain, beste aukera asko eskaintzen dituela konturatu naiz.

- Nortzuk ari zarete pilota zirkuitu horretan?

Profesional mailatik kanpo geratu garen pilotariak gara gehienak. Juantxo Koka, Lasa II, Capellan, Rai... Horrez gain, pilotari gazteak ere badira tartean, debuta egin ostean kaleratuak izan direnak.

- Non jokatzeko dituzte partiduak?

Batik bat jaialdiak uda garaian izaten dira, baina urte osoan aritzen gara. Euskal Herriko herri txikietan, jaigiroan. Hemendik kanpo, Ávila inguruan jokatu dugu.



- Jendeak oraindik estimatzen zaitu...

Hori herriz-herriz igarri dut eta benetan, eskerrik asko denei!

- Pilota profesionala, zein egoeratan da?

Urte eta garai oso onak bizi izan ostean, kudeaketa eskasaren ondorioz krisi larrian da. Frontoiak ere ez dira betetzen, apustuak ere urri, pilotari asko kalera-tzen... Pilota egoki kudeatzen ez bada, erremontearen antzera desagertzeko zorian egon liteke.

- Zein harreman duzu

mundu horrekin?

Ez naiz frontoietara azaldu ere egiten. Gogaitua amaitu nuen. Gaur egun dudan harreman bakarra pilotariekin dudan eguneroko harremana da.

- Ermuan duela zenbait urte izana zara...

Gogoan daukat esku pilota taldearen eskutik jaso nuen oparia. Etxean ondo gordeta daukat. Ermuan eta Durangaldean oso giro jatorra sumatu izan dut beti eta lagun asko daukat. Gogotsu nago Ermura berriz itzultzeko!

Asier Ibaibarriaga



Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



PRODUCTOS
SELECTOS

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MAYTE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

ENDIKA FERNANDEZ

- Zenbat denbora Aretxabaletan lanean?

Bi urte. Aurretik Ermua-Mallabia eta Markinako Lanbide-Heziketarako ikas-tetxeetan egin dut lana.

- Zenbat urte dituzte zure ikasleek?

Oraingoek, 17tik 38ra.

- Errazagoa da nagusiei klaseak ematea?

Nik gazteak nahiago ditut. Arazo gehiago ematen dute, baina aldatzeko aukera duzu. Pertsona heldu batekin oso zaila da negoziatzea.

- Kirola noiztik?

Memoria dudanetik.

- Inoiz federatu zara?

Bai, pilotan, mendian eta piraguismoan.

- Inoiz lehiatu duzu?

Ez, kirola plazergatik egiten dut. Txikitan bakarrik lehiatu dut, pilotan.

- Zenbat kirol ezberdin praktikatu dituzu?

Bizikleta, mendia, patinak, raftinga, piraguak, garai baten urpeko igeriketa, eski apur bat, surfa...

- Gustukoena?

Bizikleta: lanera joateko, bidaiatzeko, erosketak egiteko..., danetarako.

- Ermua bizikletan ibiltzeko...

Penagarria.

- Beste leku batera joango zinateke bizitzera?

Bai, Ermuan atzerritar sentitzen naiz askotan, euskal hiztuna den herrira joango nintzateke. Gainera, Ermua herri bezala ez zait gustatzen: fisikoki, zarata, kutsadura...

- Telebista ikusteko ohitu-



Endika Fernández Arrasateko ospitalean jaio zen duela 32 urte, baina betidanik bizi izan da Ermuan. Bi anai-arreben artean zaharrena da. Automozioa ikasi eta Aretxabaletako Lanbide Eskolan dihardu lanean irakasle.

rarik?

Ez, duela gutxira arte ez dut telebistarik etxean izan.

- Irratia?

Egun osoan izaten dut piztuta. Musika eta, batez ere, albisteak entzuten ditut.

- Internet?

Bai, bidaiak prestatzeko, gauzak erosteko eta amesteko.

- Askok bidaiatu duzu?

Nahi baino gutxiago.

- Zer geratzen zaizu ikusteke?

Mundu osoa. Eta herrialde asko erreplikatzeko: Peru eta Japonia, esaterako. Perun 3 bider egon naiz eta erreplikatuko dut.

- Zerk egiten du herrialde

bat berezia?

Zure umoreak, asmoek, konpainiak, bertan ezagutzen duzun jendeak, aurrekontuak... herrialde baten pertzepzioa aldatzen dute.

- Parrandazalea zara?

Ez, inoiz ez naiz izan.

- Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru?

Ez dut larregi pentsatzen. Orain dudana jomuga, natura ahalik eta gertuen duan tokian bizitzea da.

- Bertuterik?

Bertute eta akatsa dena: gauza guztiei buelta ematea, esanahia bilatzea eta jakitea gauza eta pertsona

guztiak lotuta gaudela.

- Zeri eman dizkiozu bueltak azken egunetan?

Jendearen arteko harremanei: konpromisoa galdu egin da, bai bikotean, familiarian eta lagun artean ere.

- Gustukoa duzun hori?

Esaldi eginak. Irakurri edo entzun eta gustukoak buruan geratzen zaizkit segituan.

- Irakurzaletasuna?

Bai, nire eskuetan jausten den guztia irakurtzen dut. Azkena, 'El Asedio' izan da.

- Zerk pozten dizu eguna?

Altxatze berak pozten nau, inguruan dudana jendea ikusteak eta nire bizitza zein erreza den ikusteak.

- Zer da pertsona batengan gehien estimatzen duzuna?

Perspektiba izatea, bizia izatea eta positibo izaten saiatzea.

- Zure onetik ateratzen zaituena?

Hipokresiak.

- Zer egiten duzu egunero?

Leku eta egoera berrietan pentsatu. Errutinak akabatu egiten nau.

- Zein albiste irakurtzea gustatuko litzaizuke?

Euskal Herriaren independentzia oso albiste ona izango litzateke, baina beti ere euskara eta euskal kulturarekin lotuta joango balitz. Horiek gabe, ezerk ez gaitu besteengatik ezberdintzen.

- San Martinen parte hartuko duzu?

Bai, noski. Ez dut esango Ermuko jai bakarra denik, baina ia.

Dorleta Vidal

Yoga eskola



* Arnasketa.
* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea · 943748593
685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

IV. Danbaka musika lehiaketa martxan dago jadanik

Urriaren 14an IV. Danbaka Musika lehiaketako aurkezpena egin zen eta kontzertuen datak ezagutzera eman ziren. Lehen aldiz, Drogeteniturri aldizkariak jarraipen berezia egingo dio lehiaketa honi, antolatzailea den Goienarekin kolaborazio hitzarmena sinatu eta gero. Lehiaketan Eibar-Ermuko talde batek parte hartuko du, Seafóid, eta azaroaren 26an eskainiko dute kontzertua Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

Danbaka lehiaketako aurtengo edizioan bi sari egongo dira. Alde batetik, Kutxak talde onenaren saria emango du: disko bat grabatzea. Beste alde batetik, Mondragon Unibertsitateak Debagoienerako talde onenaren saria emango du: bideoklip bat grabatzea. Horrez gain, kontzertuekin gozatzera joaten diren ikus-entzuleen artean zozketatzeko ere badaude sariak.

Prentsaurrekoa babesleekin egin zuten eta bertan izan ziren Iker Barandiaran, Danbakako koordinatzailea; Iñaki Altuna, Kutxa Gizarte Marketineko zuzendaria; Jaione Gartzia, Elgetako Kutxako zuzendaria; Susana

Azpilikueta, Mondragon Unibertsitateko komunikazio arduraduna eta Gorka Arizmendiarieta, Espaloia Kafe Antzokiko arduraduna.

Sarrerak

Sarrerak erosteko hiru modu daude: Goienako edozein egoitzatan eta Elgetako Espaloian. Bestela, telefonoz 943 25 05 05 zenbakira deituta.

Sarrerak 5 eurotan salduko dira, baina Gazte Kutxarekin erosiz gero 3 euro balioko dute. Gainera, kontzertu guztiak -finala barne- ikusteko bonu berezi batzuk ere egongo dira. Bonu horiek 22 eurotan salduko dira (12 euro Gazte Kutxarekin).



KONTZERTUAK

Azaroak 5

El Trio Calavera (Oñati)
Rock Privado (Oñati-Donostia)
Front Malabar (Arrasate)
Ymotek (Abadiño)

Azaroak 26

Xarma (Ondarru)
Txusters (Eibar)
Seafóid (Eibar-Ermua)
Scam (Aretxabaleta)

Abenduak 19

Doctors Klub (Abadiño-Durango)
Rombos Negros (Bergara)
Karpovian Projekt (Mutriku)
Ez! (Oñati)

Abenduak 17

Dark Code (Bergara)
Kubers (Soraluze)
Asfiksia (Oñati)
Industria Dolor (Arrasate)

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA

drogeteniturri

ANTOLATZAILEA

Goiena 10
Komunikazio Zerbitzuak
URTE

www.danbaka.com

Eskerrik asko bihotz-bihotzez

Bizitzan zehar, segur aski, denok makina bat bide, bidexka eta bidezidor irekitakoak eta itxitakoak gara, egun ere ugariak izanik irekitzen eta ixten ditugunak. Batzuetan egoerak behartuta; beste batzuetan emozioek edo arrazoiak soilik bultzatuta; beste zenbaitzuetan barne kontzientziak horrela erabakitzen duelako... baina, zinez amaigabea bihurtzen den joan-etorri oparoez osatzen joaten ei gara bizitza.

Bide horietan guztietan, forma, kolore edo distira ezberdina eskaintzen diguten pertsonekin egiten dugu topo. Maila, intentsitate, transzendentzia ezberdineko harremanak eraikitzen ditugu. Lagunak egiten ditugu. Kasu batzuetan, prozesu patxadatsuen ondorioz sortzen dira. Beste batzuetan, denbora gutxian elkarren arteko konexio magikoek eragiten dituzte.

Laguntasunak, errespetuan eta askatasunean oinarritutako maitasun zintzoan duela babesleku iruditzen zait. Gure baitan emaltzen, hazten eta transformatzen joaten da. Bakoitza bere modura, baina lagunek konpainia, onarpena, babesa, konfiantza, irribarreak, tristurak, e.a. ematen digute. Behar dituzunean, ezere truke emateko prest dauden horiek guztiak dira. Ia beti norberaren bizitzan ikasbide ugari eskaintzen dizkigute, ikas prozesu amaigabe baten kiribilean gora. Zoragarriak batzuetan, gogorrakoak beste batzuetan, baina guztiak norbera hazten eta heldutzen jarraitzeko lezioak.

Azkeneko asteetan, neure buruarekin laguntasunaz pentsatzen, sentitzen eta hausnartzen ibili naizen honetan, lagun batek Rosa Monterok idatzitako 'Gracias' iritzi artikulua bidali zidan e-mailaz. Sorpresa polita izan zen. Hau




Ainara Riveras

ere laguntasunaz ari zen. Edarra iruditu zitzaidan, heldua, zintzoa, bihotzetik idatzia eta eskainia.

Drogeteniturriren proposamen hau iritsi zitzaidanean, hasiera batean, mugez eremuan kokatuta, latsa apur bat sentitu eta zeri buruz idaztea erabakitzea kostatuko zitzaidala pentsatu nuen. Telefonoa eskegi eta segituan, hala ere, barne kontzientziak eskaintzaren inguruko beste begirada bat agertu zidan, baietz esan izanaren ondorioz azken asteotako asmoa eta gogoia egia bihurtzeko aukera. Bat-batean, Rosaren artikulua gogoratuz, neure bertsio propioa eta apala sortzea eta, modu honetan, zuek denok omentzea otu zitzaidan.

Modu ezberdinetan baina finean, maite zaituztedalako. Gertu, urruti, lehen, orain eta beti. Mila esker!!!

“ Amaigabea bihurtzen den joan-etorri oparoez osatzen joaten ei gara bizitza ”



IKASTOLA
38 urte Ermua
euskalduntzen




**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

ZERBITZUAK

Eguneroko eta betiko edota zeuk gura dituzun janak prestatzen ditut. Etxera eroateko edo zure etxean bertan prestatuta. Sukaldari eta gozogile tituluduna. 676090814. Ainara.

LANA

Tituludun emakumea eskaintzen da menpekotasunak dituzten pertsonak zaintzeko. 619859032



Azaroak 20
Zorionak lhintza!!!! Ondo pasa zure 4. urtebetetzea. Muxu handi bat familia osoaren partez.



Azaroak 25
Zorionak Vero etxekoan partez. Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat.



Urriak 25
Zorionak Aritz zure 7. urtebetetzean. Ondo pasa zure familiarekin.



Urriak 21
Zorionak Bingen! Musu handi bat izeko, osaba eta Axperen partez. Ondo pasa eguna!



Azaroak 10
Zorionak Aroa zure 7. urtebetetzean. Muxu handi bat aitaren eta amaren partez. Ondo pasa.



Azaroak 15
Zorionak Nora!!!! Familia eta lagunaren partez. Kafia nun????



Mikel, azaroak 12, eta Olatz, azaroak 25 Zorionak Mikel eta Olatz. Oso ondo pasa eta muxu handi bat zuen guraso eta lagunaren partez.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo gure bulegora ekarri.
Hurrengo zenbakirako azken eguna:
AZAROAK 15

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
Telefona: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Zerrailgintza
- * Brikolaia
- * Kit altzariak
- * Rielak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona


DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

**MALLABIA
1982**

Bertan agertzen dira:
Aintzane Arregi, Asun Pradera,
Iñaki Carrillo, Jose Luis Telleria,
Fidel Garitagoitia, Miguel Villa,
Jabier Antxia, Aitor Sarasua,
Agurtzane Aramburu,
Valen Pradera, Ceci Solozabal,
Alicia Villate, Ana Muñoz,
Miren Josune Txakartegi,
Josexu Pradera,
Faustino Etxenagusia eta
Josu Garitagoitia.

**ERMUA
1953**

Kanposantu zaharra Sta. Ana auzoan zegoen, gaur anbulategiko parkea kokatzen den lur-eremu berean. 1981eko irailean itxi zen betirako eta parkean jatorrizko harlanduzko atea kontserbatzen da oraindik, 'Año 1893' inskripzioarekin. Koro eta lorengaitik, Domu Santu eguna ematen du. Etxexo luzenga hori kapilla zen, lurra eman aurretik gorpua lagatzen zen lekua, errezo eta bedeinkapen guztiak egiteko. Honen ezkerreko karratua Maria Astiazaranen panteoia da, Don Leopoldo famosoaren ama. Umeteriaren artean entzute handiko gizona izan zen, urtean behin San Pelaion globoak eta txokolate beroa banatzen zituelako herriko ume guztien artean.

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



www.joyeriasenen.com / joyeriasenen@gmail.com

Ermuko saihesbidearen maketa ikusgai egon da irailean Teresa Murga Liburutegian. Guztira 2.622 lagunek ikusi dute maketa www.ermua.es web gunean agertzen diren estatistiken arabera. Durangaldean 2011an eraikiko den errepide sarea erakusten zuen maketak eta tartean Ermuko saihesbidearen egitasmoaren nondik norakoak.

Ikusi duzu saihesbidearen maketa? Zer dakizu proiektuari buruz? Zer iruditzen zaizu?

Maketa ez dut ikusi eta saihesbideari buruz badakit zerbait, baina kalean entzун dudana. Oso proiektu ona eta beharrezkoa iruditzen zait, Ermutik egunero pasatzen den trafikoa jasanezina delako.



David Pinilla. 29 urte. Langilea



Badakit Udal liburutegian saihesbidearen maketa jarri dutela, baina ez naiz ikustera joan. Dakidan gauza bakarra da Sallabenten errotonda bat eraikiko dutela. Proiektua oso egokia eta beharrezkoa iruditzen zait, trafikoa ordu batzuetan izugarria delako.

Jose Luis Gavilán. 42 urte. Langilea



Ez naiz joan maketa ikustera, baina zer edo zer badakit. Areitiotik pasako dela, autopistatan errotonda bat egingo dutela eta autopistako sarrera ere aldatuko dutela. Ermuarentzat beharrezkoa dela iruditzen zait. Gu kotxez ibiltzen gara eta zoramena da, beraz, auto-ilaren arazoa konpontzeko irtenbidea izan daiteke.

Nekane Bilbao. 34 urte. Langilea

Maketa ez dut ikusi, baina gutxi gora behera irudikatzen dut buruan nondik nora joango den. Nik Mallabian egiten dut lana eta oso ondo etorriko zaigula uste dut, bai herritarrei, funtsezkoa baita autoilarak saihesteko eta baita poligonoetara joan behar duten kamioiei, Ermua igarotzea zoramena delako.



Diego Perez. 34 urte. Langilea

Ez naiz maketa ikustera joan. Badakit nondik nora joango den, baina oso modu orokorrean, xehetasunik gabe. Pentsatzen dut beharrezkoa dela batez ere Ermutik kanpo lan egitera kotxez doazenentzat eta poligonoetara doazen kamioi horiek guztiak herritik ateratzeko.



Nerea Martinez. 34 urte. Langilea



Ez naiz maketa ikustera joan. Badakit San Pelaio aldeko zatia nola joango den gutxi gora behera, Sallabenten ere aldaketa nabarmenak izango direla, baina ez ditut zehaztasunak ezagutzen. Alde onak ikusten dizkiot saihesbideari zalantzarik gabe, baina agian beste aukera batzuk ere aztertu zitezkeen, Mallabiarekin elkarlanean egitea edota ingurumenaren gaineko eragina gutxituz.

Txaro Fuentes. 43 urte. Langilea

Testua: Alazne Aiestaran

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7:
'Vicky el vikingo'
(euskaraz)

Hilak 14:
'Rompedientes'

Hilak 21:
'Campanilla y el gran rescate'

Hilak 28:
'Marmaduke'
17.00etan.
Lobiano kulturgunean.
Sarrera doan.

ZINE-KLUBA

Hilak 4:
'Cosas que nunca te dije'

Hilak 11:
'Wellcome'

Hilak 18:
'Mujeres de El Cairo'

Hilak 25:
Emakumeen aurkako biolentziaren nazioarteko egunaren emanaldi berezia.
19.00 eta 21.30etan.
Lobiano kulturgunean.
Sarrera doan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 6:
Haurrentzako ipuin-kontakteta.
17.30ean. Liburutegian.

Hilak 27:
Haurrentzako antzerkia:
'Mondo Flurss', Kolore Bitxiaren eskutik.
17.00etan. Lobiano kulturgunean.
Sarrera: 3€

ERAKUSKETAK

Hilaren 2tik 14ra:
Irdiak:
Beatriz González.

Hilaren 2tik 14ra:
Argazkiak:
'2010 oporrak'
lehiaketara aurkeztutako lanak.

Hilaren 15etik 30era:
Argazkiak:
Teresa Cid.

Lanegunetan
18.00etatik
20.00etara.
Asteburuetan
12.00etatik
14.00etara eta
18.00etatik
20.00etara.
Lobiano kulturgunean.

ANTZERKIA

Hilak 12:
'Miguel Hernández:
poesía para la libertad',
Ermuko Antzerki Tailerra.
19.30 eta 22.15ean.
Lobianon. Sarrera: 5€

Hilak 26:
'Kanpaiak jo bitartean',
Glu-Glu Produkzioak.
22.15ean. Lobianon.
Sarrera: 5€

MUSIKA

Hilak 5:
Esne zopak. 22.15ean.
Lobianon. Sarrera: 5€

Hilak 19:
Zezilia Deunaren
jaialdia. 22.00etan.
Santiago elizan.

Hilak 20:
Jazz- blues Kontzertua:
Ángela Cervantes &
Jvera Group. 20.00etan.
Lobianon. Sarrera: 5€

Hilak 22:
Zezilia Deunaren
kalejirak. 17.00etan
(Irulitxa Txaranga) eta
18.00etan (Alboka
Musika Eskola).

Hilak 27:
Ermuan kantuan: kaleji-
ra. 12.30ean. Orbe
Kardinalaren plazatik.

Hilak 28:

Flamenkoa: Olibondoren
jaia. 18.00etan.
Andaluziako zentruan.

BESTELAKOAK

Hilak 6:
Laburmetraien
emanaldia: '2010eko
kameratoia' lehiaketara
aurkeztutako lanak.
19.00etan. Lobianon.

Hilak 13:
San Martin Azoka: hain-
bat ekitaldi. 11.00etatik
aurrera. Orbe
Kardinalaren plazan eta
inguruetan. (Egitaraua
aldizkariko lehen orrian).

Hilak 15:
Gaztañerre.
19.30etatik aurrera.

Hilak 20:
Magostos: Gaztainen
banaketa eta giro musi-
kala. Galiziako zentroan.

Hilak 27:
Bertso emanaldia:
Xebastian Lizaso, Unai
Iturriaga, Maialen
Lujanbio eta Igor Elorza.
22.15ean, Lobianon.
Sarrera 10€ Euskal
Birusako bazkide ez
direnak eta 8€ Euskal
Birusako bazkideak.

Patxi López

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK


Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

 "Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomata

Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

Irale
hortz klinika

Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Pedriodontzia
- Odontologia orokorra
- Aho zirujia
- Inplanteak

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
www.irale.com

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
Urtzaile 1, 1. esk. (Eibar) 646 233 182

 **san pelayo**
clínica dental hortz klinika

Inplanteak
Ortodontzia
Periodontzia
Hortz -zuriketa / Estetika dentala
Odontologia orokorra
Protesiak
P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Ermua (Bizkaia)
Olaz Garcia Arregui 943 17 04 04

OSASUN GIDA

 **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

 fisioterapia
eta osteopatia
zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
Telf. 943 17 60 95
629 88 70 89
Sexto Centenario 13,behea
48260 ERMUA (Bizkaia)

Herboralia
Belar-denda

- Fitoterapia
- Aromaterapia
- Bach loreak
- Janari ekologiko eta biologikoak
- Bio-kosmetika
- Pertsonalizatutako dietak
- Teak pisura
- Masajeak

Goienkale 4 - Ermua / 943 17 37 04

**OSASUN GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU
943 17 93 50 edo 688 63 28 76
TELEFONORA**



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA



- 📄 Aho eta inplante kirurgia
- 📄 Hortzetako protesiak
- 📄 Hortz estetika
- 📄 Ortodontzia
- 📄 Odontopediatria
- 📄 Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

Eskerrik asko klinika berriaren inaugurazioan parte hartu zenuten guztioi



**Etorri eta jaso
ezazu zure
opari txartela
azaroaren 6a
baino lehen!**

CLÍNICA DENTAL
NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

**-80€
OPARIA**

T: 943 030 512



San Inazio 4
(Sarrera Bizkaia etorbidetik)
48260 - Ermua (Bizkaia)

Tel.: 943 030 512
Faxa: 943 031 045
niklinika@gmail.com